

STM

San Telmo Museoa



BLACK IS BELTZA

ERAKUSKETA | EXPOSICIÓN **2018-06-15**
EXPOSITION | EXHIBITION **2018-09-30**

San Telmo Museoa

Laborategia | Laboratorio

Sarrera dohainik | Entrada gratuita | Accès gratuite | Free entrance

Zuloaga Plaza, 1. 20003 Donostia / San Sebastián

www.santelmomuseoa.eus

Antolatzailea / Organize:



Proiektua / Un proyecto de:



SAN TELMO MUSEOA

Zuloaga plaza, 1 – 20003 Donostia / San Sebastián
T. (0034) 943 481 580 E. santelmo@donostia.eus

www.santelmomuseoa.eus



**DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN**



**donostia
kultura**

SAN TELMO MUSEOAK FERMIN MUGURUZAREN *BLACK IS BELTZA* ERAKUSKETA AURKEZTEN DU

- *Fermin Muguruza eta Azkuna Zentroaren proiektu honen oinarria musikari eta zinemagileak Harkaitz Cano idazlearekin eta Jorge Alderete ilustratzailearekin batera sortutako Black is Beltza eleberri grafikoa da.*
- *Laborategian izango da ikusgai, dohainik, ekainaren 15etik irailaren 30era bitarte. Azkuna Zentroan 2014-15ean ikusgai izan ondoren, erakusketa erabat berrituta dator San Telmoko Laborategira: irailean aurkeztuko den animazio filmerako erabilitako edukiekin.*

San Telmo Museoa *Black is Beltza* hartuko du 2018ko ekainaren 15etik irailaren 30era, Fermin Muguruzaren eta Azkuna Zentroaren proiektua, artistak Harkaitz Cano idazlearekin eta Jorge Alderete ilustratzailearekin batera sortutako eleberri grafikoan oinarritutakoa. Erakusketa erabat berrituta dator San Telmoko Laborategira: irailean aurkeztuko den animazio filmerako erabilitako edukiekin. Dohainik ikusi ahal izango dira istorio hau eraikitzeke erabilitako materiala eta bere irudi adierazgarriak.

Proiektu honek 1965eko New Yorkeko Erakusketa Unibertsalean Iruñeko erraldoiek eduki zuten presentzia du abiapuntu bezala. *Black is Beltzak* musika, maitasuna eta iraultza nahasten dituen akzio eta espioitza istorioa eraikitzen du.

Proiektu hau burutzearen motibazioa, egileak, prentsan, gertukoa bezain arrotza suertatu zitzaion gatazka paradoxiko bat barne hartzen duen irudi bat aurkitzen duenean sortuko da: “New Yorken, 1965ean ateratako argazki bat hain zuzen ere. Argazkian, Iruñeko erraldoien konpartsa agertzen da, San Fermin jaien ohiko irudia, New Yorkeko 5. Hiribidetik desfilatzen. Arrazagatiko istiluak zirela eta, erraldoi beltzen parte-hartzea debekatu zela aipatzen zen honen argazki-oinean. Hori irakurtzean istorioa hemen zegoela jakin nuen”.

Gertaera historiko hau abiapuntutzat hartuta, Muguruzak Manex Unanueren kontakizuna eraikiko du, gure istorioaren figura nagusia. Gazte ipar-euskaldun honen begiradatik 1960ko hamarkada erdialde aztoratua markatuko zituzten gertakizunetako asko kontatuko dira: Malcom X hil ondorengo arrazagatiko liskarrak; jada mitikotzat dugun The Factory inguratzen zuten pertsonaien eszentrikotasunak; kubatar División de Inteligencia zerbitzu sekretuen eta Ameriketako Estatu Batuetako Black Panthersen arteko aliantzak; garaiko musika jaialdietan psikodelia proto-hippieak eduki zuen eragina; Gerra Hotzaren garaian alderdi ezberdinetako espioitzen interes jokoak; Cheren espiritua Congon, Aljerian eta honen heriotza Bolivian; eta bukatzeko, gure *backyard*-a: zaharkitutako Frankoren diktadura grisa.

Finean, Manexena, errealtatea eta fikzioa uztartzen dituenen intrigazko istorioa da; maitasunaz, erreboluzioaz eta espioitzaz hitz egiten duena. Betiere, era grafikoan azaleratu eta garaian kokatzen gaituen soinu bandaz lagundua.

San Telmo Museoa ikusi ahal izango den erakusketak, ikusleak Manexen abenturarekin batera bidaia egitera gonbidatzen ditu protagonista orain dela 50 urte egon zen herri desberdinetako tokiak ibiliz. Erakusketak, zuzenean edo zeharka, proiektuaren fase ezberdinak elikatu dituen materiala biltzen du. Egileari narrazioa egituratzen lagundu dioten prentsa artikulak eta animaziozko filma egiteko erabili den materiala. Baita garaiko egoera soziopolitiko eta kulturala islatzen duten ikus-entzunezko materiala ere.

JARDUERAK:

ZINEMA

- Uztailak 3, asteartea. 22:00.
HEAVY METAL (1981), Gerald Potterton. JB azpit. Eusk.
- Uztailak 10, asteartea. 22:00
HAVE A NICE DAY (2017), Liu Jian. JB azpit. Gazt.
- Uztailak 17, asteartea. 22:00
RE-VENGEANCE (2016) Bill Plympton. JB azpit. Eusk.

Sarrera librea, lekuak bete arte

SAN TELMO GAUA: *BLACK IS BELTZA*

Uztailak 21, larunbata

Irekiera berezia. Aldi baterako erakusketak, eliza eta klaustroa irekita 20:30etik 24:00etara. Taberna zerbitzua eta zuzeneko musika: The Sey Sisters, Bad Sound System, DJ Unai Muguruza.

Sarrera dohainik.

ZEHARKAKO BEGIRADAK

Erakusketa Fermin Muguruzaren eskutik ezagutzeko aukera

- Irailak 6, osteguna, euskaraz. 18:00
- Irailak 13, osteguna, gaztelaniaz. 18:00

Dohainik, izena aurrez eman behar da: 943 481 561, stm_erreserbak@donostia.eus

BIOGRAFIAK

FERMIN MUGURUZA

Musika esparruan egin duen ibilbide zabalagatik dugu batez ere ezaguna, Fermin Muguruza; Kortatu 1980. hamarkadan, Negu Gorriak 1990.ean eta bakarlari moduan, geroztik. Honez gain, azken 8 urteetan ikus-entzunezko alorrean gauzatu duen lan gorpu esanguratsuegatik ere nabarmendu izan da. *Bass-que Culture*, *Checkpoint Rock*. *Canciones desde Palestina*, *Zuloak*, *Nola?* eta *No More Tour* film luzeez gain, musika arabiarrari buruzko 11 dokumentalek osatzen duten seriea, *Next Music Station*, zuzendu zuen Al Jazeera katearentzat. Gaur egun, musika dokumentalen sailean, Mexikoko DOCSDF eta Cine Migrante de Argentinako programatzailea da.

www.muguruzafm.eus

HARKAITZ CANO

Harkaitz Cano gaurko euskarazko literaturaren adierazgarri nagusienetakoa da. la genero guztiak landu ditu: ipuina, nobela, poesia eta saiakera. Bere argitalpenik berrienak *Twist* eleberria (2013), *Circo de Invierno* kontaketa-bilduma (2013) eta *Compro Oro* poema-liburua (2011) dira. Musikari eta artista plastiko ezberdinekin egin ohi duen elkarlanagatik ere ezaguna da. Komiki gidoilari gisa, bi lan argitaratu ditu Iñaki G. Holgado marrazkilariarekin batera. Bere obra ingelesera, holandesera, italiera eta errusiera itzulia izan da, beste hizkuntzen artean.

www.harkaitzcano.com

JORGE ALDERETE

Jorge Alderete, Argentinako Patagonian jaiotako diseinatzaile eta ilustratzailea da, egun Mexikon bizi dena. Nazioarteko hainbat antologiatan bildu dira haren lanak. Rock munduarekin duen harreman estuaren lekuko dira hainbat herrialdeetako taldeentzat egin dituen 100 disko azal, kartel eta diseinuak: Lost Acapulco, Sonido Gallo Negro eta Twin Tones Mexikon; Los Fabulosos Cadillacs eta Andres Calamaro Argentinan, eta Los Straitjackets AEBetan, beste askoren artean. Isotonic Records diskoetxearen jabe eta sortzaileetako bat da, baita Vertigo Galeriarena ere. Break dira *Yo soy un Don Nadie* (2008), *Sonorama* (2012) eta *Otro Yo* (2012) liburuak.

www.jorgealderete.com

SAN TELMO MUSEOA PRESENTA LA EXPOSICIÓN *BLACK IS BELTZA*, DE FERMIN MUGURUZA

- *El origen de este proyecto de Fermin Muguruza y Azkuna Zentroa está en la novela gráfica Black is Beltza, creada por el músico y cineasta junto con el escritor Harkaitz Cano y el ilustrador Jorge Alderete.*
- *Podrá visitarse gratuitamente en el Laboratorio desde el 15 de junio hasta el 30 de septiembre. Presentada previamente en Azkuna Zentroa, llega al Laboratorio de San Telmo completamente renovada: con los contenidos utilizados para la película de animación que se estrenará en septiembre.*

San Telmo Museoa acoge, del 15 de junio al 30 de septiembre de 2018, la exposición *Black is Beltza*, un proyecto de Fermin Muguruza y Azkuna zentroa, en torno a la novela gráfica creada por el artista junto con el escritor Harkaitz Cano y el ilustrador Jorge Alderete. La exposición llega al Laboratorio de San Telmo completamente renovada: con los contenidos utilizados para la película de animación que se estrenará en septiembre. Podrá visitarse gratuitamente. En ella se muestra parte del material utilizado para construir esta historia y las imágenes más significativas de la misma.

Este proyecto tiene como punto de arranque la presencia de los gigantes de Pamplona en la Exposición Universal de Nueva York en 1965. *Black is Beltza* construye una historia de acción y espionaje que mezcla música, amor y revolución.

La motivación que empujó a Fermin Muguruza a la realización de este proyecto surge cuando el autor descubre en la prensa una imagen que recoge un conflicto que paradójicamente le resulta tan extraño como familiar: “Desde que observé la foto tomada en New York en el año 1965 en la que aparece la comparsa de los gigantes de Pamplona, imagen típica de las fiestas de San Fermín, desfilando por la 5ª avenida de New York, y el pie de foto en el que se podía leer que debido a los disturbios raciales, se prohibió la participación en el desfile a los dos gigantes negros, supe que aquí había una historia”.

A partir de este hecho histórico, Muguruza construirá el relato de Manex Unanue, la figura principal de nuestra historia. La narración cuenta desde la mirada de este joven de origen vasco francés, los acontecimientos que marcaron la convulsa sociedad de mediados de los sesenta: los disturbios raciales derivados de la muerte de Malcolm X, las excentricidades que protagonizaron los personajes que albergaban el ya mítico The Factory, las alianzas entre los servicios secretos de la División de Inteligencia Cubana y los Black Panthers estadounidenses, la psicodelia proto-hippie que inundó los festivales musicales de la época, los juegos de intereses de los espías de ambos bandos durante la Guerra Fría, el espíritu del Ché en el Congo, Argelia y su muerte en Bolivia, y nuestro *backyard*: la decrepita y gris dictadura franquista.

Una intrigante historia que compagina la ficción con la realidad; habla de amor, de revolución y de espionaje. Siempre acompañada por una banda sonora como telón de fondo que se manifiesta de manera gráfica y que nos transporta a la época.

La exposición que podrá verse en San Telmo Museoa invita al espectador a un viaje que transcurre paralelamente a la aventura de Manex, recorriendo los diferentes países donde nuestro protagonista estuvo 50 años atrás. También recoge el material que directa e indirectamente ha nutrido las diferentes fases del proyecto: desde los archivos fotográficos que han ayudado al autor a estructurar la historia, a los dibujos originales de la película de animación o los materiales audiovisuales que dan cuenta del panorama sociopolítico y cultural del momento.

ACTIVIDADES:

CINE

- Martes, 3 de julio. 22:00
HEAVY METAL (1981), Gerald Potterton. VO subt. Eusk.
- Martes, 10 de julio. 22:00
HAVE A NICE DAY (2017), Liu Jian. VO subt. Cast.
- Martes, 17 de julio. 22:00
RE-VENGEANCE (2016) Bill Plympton. VO subt. Eusk.

Entrada libre hasta completar aforo

SAN TELMO GAUA: *BLACK IS BELTZA*

Sábado, 21 de julio

Apertura nocturna. Exposiciones temporales, iglesia y claustro abiertos de 20:30 a 24:00. Servicio de bar y música en directo: The Sey Sisters, Bad Sound System, DJ Unai Muguruza.

Entrada libre.

EN PRIMERA PERSONA

Una oportunidad de conocer la exposición de la mano de Fermín Muguruza

- Jueves, 6 de septiembre, en euskera. 18:00
- Jueves, 13 de septiembre, en castellano. 18:00

Gratuitas, con inscripción: 943 481 561, stm_erreserbak@donostia.eus

BIOGRAFÍAS

FERMIN MUGURUZA

Conocido sobre todo por su extensa carrera musical; Kortatu en los 80, Negu Gorriak en los 90 y su recorrido en solitario posterior, también ha realizado en los últimos 8 años un extenso trabajo en el campo audiovisual. Además de los largometrajes *Bass-que Culture*, *Checkpoint Rock*, *Canciones desde Palestina*, *Nola?* y *No More Tour*, también ha dirigido la serie de 11 documentales sobre la música árabe *Next Music Station* para la cadena Al Jazeera. Actualmente es también el programador de las secciones de documental musical de los festivales DOCSDF de México y Cine Migrante de Argentina.

www.muguruzafm.eus

HARKAITZ CANO

Harkaitz Cano es uno de los mayores exponentes de la literatura vasca actual. Su trabajo se extiende por casi todos los géneros: cuento, novela, poesía, ensayo. Sus publicaciones más recientes son la novela *Twist* (2013), la colección de relatos *Circo de invierno* (2013) y el poemario *Compro Oro* (2011). Colabora habitualmente con músicos y artistas de diferentes disciplinas. Como guionista de cómic ha publicado dos álbumes junto al dibujante Iñaki G. Holgado. Su obra ha sido traducida al inglés, al holandés, al italiano y al ruso, entre otros idiomas.

www.harkaitzcano.com

JORGE ALDERETE

Jorge Alderete es un diseñador e ilustrador nacido en la Patagonia argentina, que actualmente reside en México. Sus trabajos han sido publicados en diversas antologías de diseño e ilustración alrededor del mundo. Siempre vinculado con la escena del rock, ha realizado más de 100 artes para discos de bandas de distintas latitudes como Lost Acapulco, Sonido Gallo Negro y Twin Tones (México), Los Fabulosos Cadillacs y Andrés Calamaro (Argentina), Los Straitjackets (USA), entre otros muchos. Es cofundador y propietario del sello discográfico Isotonic Records, socio fundador de Vertigo Galeria y autor de los libros *Yo soy un Don Nadie* (2008), *Sonorama* (2012), y *Otro Yo* (2012).

www.jorgealderete.com